



## **IZENBURUA: Sexu jazarpena hurrengan Funtsezko elementuak eta hautematea**

### **DESKRIBAPENA:**

Tarte teoriko-praktiko honen helburua hurrekin lan egiten duten pertsonen bai sexu jazarpenaren inguruko ezagutza espezializatuak, bai sexu jazarpena detektatzeko jarraibideak ematea da. Kasuak beste zerbitzu espezializatueta nola bideratu ere adieraziko da.

Torontoko Unibertsitateko Filosofian katedraduna de Ian Hacking-en aburuz, gaur egun giza kategoria berri baten eraikuntza topa dezakegu: sexu jazarpena hurrengan, hain zuzen. Haurtzarora arriskuaren nozioarekin harremantzen da, beharrezkoa den arreta eta zaintza ez jasotzearen arriskuarekin sexu jazarpena, beraz, haurtzaroko ondoezaren paradigma garaikidean eratzen da.

Adierazpen berri honek abiapuntu du 60ko hamarkadan Kempel doktoreak argitaratutako lana "tratu txarrak jasandako umearen sindromea" deskribatzen duena. Momentu honetatik aurrera, perfil ezberdinen deskribapena jorratearen lana hasi zen, erasotzailearen profila, biktimarena eta familiarena; bestetik abusuarekin bat datozen faktoreak eralkitzeko eta mugatzeko saiakerak egin dira, abusuak agertzeko arriskua handiagotzen duten faktoreetatik bereizteko; haurraren jazarpenak izan ditzakeen ondorioak zehaztu dira eta esku-hartzerako testuinguruak eta estrategiak eraiki dira; etab. Klinikaren mailan, azken beltzean, sexu jazarpena trauma psikikoaren ideiarekin lotu da eta estres posttraumatiko sindromearen faktore eragileen artean barne hartu da.

Azken hiru hamarkadetan, hurrenganako sexu jazarpen egoerak gizartean tabu izatetik komunikabideetan presentzia izatera pasatu dira eta zerbitzu publiko ezberdinetan (hezkuntzan, osasun arloan, gizarte zerbitzuetan, judizialean) aurre egiteko zaila den errealitatean bihurtu da. Barne arazoetako ministerioaren datuen arabera, hurrenganako sexu erasoaren inguruko salaketek 2015ean %5a gora egin dute.

Hautemate azkarra eta espezializatutako zerbitzuetara heltzea, ezinbestekoak dira hurren atentziorako eta jazarpenak eragindako mina txikiagotzeko, hala ere, irizpideekiko nahasteak, zerbitzuen eskuduntzak, prozedurek etab. ez dute beti erantzun egokia bermatzen. Formakuntza honetan hurrengan sexu jazarpen susmoaren aurrean nola jokatzeko argituko duten hainbat gako eta lanabesak eskainiko dira.

**HARTILEAK:** Psikosozial, osasun, epai eta hezkuntza- arloko profesionalak.

### **HELBURUAK :**

- Hurren sexu jazarpenaren oinarri teoriko garrantzitsuenak ezagutzea.
- Hurren sexu jazarpen susmoa dagoenean erabiltzen den lanabesa ezagutzea.
- Egoera hauetan nola jokatzeko gakoak eskaini.
- Benetako egoeren azterketa eta egiaztatzea egiteko espazioa.



**EDUKIAK:**

- Haurren sexu jazarpenaren definizioa eta ondorioak.
- Sexu jazarpena hautemateko oinarrizko tresnak ezagutu.
- Sexu jazarpenaren susmoa baloratzeko lanabesa.
- Susmoa dagoenean, zer egin behar den eta zer ez.
- Kasu praktikoak.

**METODOLOGIA:** Teorikoa, praktikoa eta erreflexiboa. Kasuen kontrastea egiteko gunea

**TIPOLOGIA:** Presentziala

**PLAZAK:** 15 pertsona

**DATAK ETA ORDUTEGIA:** Martxoak 15, 9.30etik 14.30era eta 15.30etik 18.30era.

**TOKIA:** Agintzari-n, Madariaga zeharkalea 1, 4. solairuan, Bilbo.

**HIZKUNTZA:** Gaztelania

**SALNEURRIA:** 100 €

**HEZITZAILEAK:**

**José Ramón Elizondo**

Agintzari GEK-en Psikologo klinikoa eta psikoterapeuta da. Bizkaiko Foru Aldundiaren Haurren zerbitzuko Abusu Sexualen egoeratan esku-hartze Programaren koordinatzailea. Hitzune-n, sexu erasotzaile konbiktuen programaren psikoterapeuta da. Gizarte eta hezkuntza arloko profesionalen irakasle eta gainbegiralea.

**Rosa Lizarraga,**

Agintzari GEK-en haur eta nerabeen psikoterapeuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Haurren zerbitzuko Abusu Sexualen egoeratan esku-hartze Programaren partaidea da. Gizarte eta hezkuntza arloko profesionalen irakasle lanetan parte hartzen du.